

## I L U N B E A...

Jon Lekuona

*Zerain, 17 urte*

...goitik... Kanela, goitik! –ari nintzaioan zaku-  
rrari mandatuak ematen zelaian gora abiatu zituan  
ardiak biltzeko asmoz. Jada eguerdi garaia bazuen  
ere, behelainoak sakan guztia estaltzen zian...  
Benetan fresko egiten zian, are gehiago sagasti baz-  
ter laiotz hartan... Zozoak ere ez zituan jabetu jada  
hamabiak hituenik, txor-txorka kantari... Ez nian  
deus ikusten eserita nengoen tokitik..., lainoa itxi-  
itxi zegoan Amebizabalgo etxeburuan. Halakoan,  
bidetik gertuen zeudean ardiak gorantz abiatu  
zituan..., izututa. Bibiana huen, laiotzaldeko iturrira  
bidean... ozta-ozta atzeman nian; buztinezko pitxar  
bat zeramaan ezker eskuan. Berehalakoan ezkutatu  
zuan ametsetako irudia zirudien laino arteko itzal  
heze hura. Berehala hasi zuan lainoa altxatzen...,  
lehen eguzki printzak atzematzen. Orduantxe ikusi  
nian Amebizabalgo alaba zaharrena ezkutatzeko, itu-  
rri aurreko gorostitzar handiaren adarren gibelean.

Egunero eramaten ziaten Amebizabaldarrek ura  
“Kostizarreko” iturritik. Ur fresko-freskoa zuan,  
inondik den urik ederrena. Ez zizkian minutu pare  
bat baino askoz denbora gehiago egin... Itzuleran  
zeturtean... ogi koloreko soineko zabal bat zera-  
maan soinean; estua gerrialdean...

Artzain bati baino gehiagori otuko zitzaioan  
Ama Birjina Guztiz Garbia azaldu zitzaioa... Nik

banekian, ordea, emakume hilehori hura Amebizabalgo alaba zuala. Ez gintuan elkar asko ezagutzen...; ez genian askotan hitz egiten, eta halakoetan eguraldiaz, auzoko gertaeraren batez eta lurren arrendamenduen kosteaz hitz egiten genian, nik erabiltzen bainizkian Amebizabalgo belardi guztiak. Askotan, begiradak esanguratsua-goak dituk hitzak baino...; badakik hitz batek esanahi bakarra duela, bi gehienez ere... Begiradek, aldiko gauza anitz atzeman zitzaiek: haserrea, poza, lilura, batenganako itsutasuna... Halakoxe begirada egiten nioan, baita pitxarretik ur parrastadak lurrera botaz nire aurretik pasa zuan hartan ere... Irriparrea jartzen zitzaidan aurpegian, begiek dir-dir egiten zidatean harenak ikustean eta Bibianarenganako lilura atzematen zitzaidan.

Bide ertzera hurbildu ninduan, ez baita jokabide zuzena besteren etxe ondoan bertakoa agurtu gabe geratzea. Halere etzaidak gehiegi gustatzen Bibianari hitz ematea...; beldurra zioat, urduritasuna duk agian. Aurre hartu zidan.

– Nabari duk ez daukaala hotz handirik! Zoko laiotz horretan eta atorra hutsean! –zerbait esan behar eta.

– Ez din erretzeko moduko berorik egiten ez! –erantzun nioan, urduritasuna nabari zitzaidalarik.

Orduan ere hori izan huan gure ohiko mintzaldia..., eguraldia, giroa, gure interesa. Balitekek bere interesa eguraldia ez izatea, baina nirea eguraldia huen, giroa..., Amebizabalgo erreginarengandik hurbil egotea, ahalik eta gertuena, ahal iza-

nez gero betiko... Ordea, alferrik huen iraganari begira egotea, edo iraganaren iraganari... Ez ninduan gauza aurrez-aurre Bibianari sentitzen niana esateko. Zergatik esanen nioan neure buruari, zerk eragozten zidan garbi azaltzea... Aspaldi galdu nian lotsa, alferrikakoa eta kaltegarria zela konturatu ninduan egun hartan. Lotsa ez baduk eragilea..., beldurra izan zitekek. Balitekek Goenako Aurelioren beldurra sentitzea. Bai..., Bibianaren aita.

Guk Goenako Aurelio deitzen genioan...; Goenako Don Aurelio beste batzuk, jaiotzez Goenakoa baizuan. Goena, Txaramuino izenez ezagutzen genian tontor batean zegoan; baserri ederra eta bikaina zuan...; ermoa, zaharrari entzun ohi nioanez. Zuhaitzako jauntxoak bizi omen hituen garai batean dorretxea izan zuan Goenan.

Hala bazuan edo ez bazuan, bazian Aureliok odol urdinaren ikuturik. Orduan Amebizabalen bizi bahuen ere, emaztea bertakoa baitzian, berea zian Goena, izugarrizko lursailekin. Aitona zenak esan ohi zianez lurraren errentatik jaten omen ziaten Goenatarrek, eta gizaldiak pasa bazituan ere, Don Aureliok errentatik dirutza handia lortzen zian. Ez zian bere burua zimaurraren ondokoa; karlisten gerratean, general izatera heldu omen huan eta gaztetan letretako ikasketak burutua. Halere, niri gizarajo artaburu bat iruditzen zitzaidan, kolejiatu gabeko artzaiok baino kaikuagoa. Berriz, ez zuan artzain ezjakinekin ibiltzen... Inondik zituan asanblea, bilera, udaletxeko bil-

tzar... guztietara azaltzen huen, herritarrei lagun-  
du nahian zebilen jakite handiko gizaseme prestua  
bailitzan. Herriko handiskekin ibiltzen huen;  
hauek ez zioaten jaramonik egiten. Don Aurelio  
deitzeak puztu egiten zian. Bere zorionaren arra-  
zoia hanpuruskeria besterik ez zuan.

Nork, artzaia bera alegia, esanen zioan Aureliori  
nik apeta niana; Amebizabalgo Bibiana. Hori esa-  
ten zian nire nahierak, baina ez zitzaidaan gomu-  
tatu ere egin esatean... Betidanik zegoan artzain  
bat eta odol urdineko lagun bat ezkontzea debe-  
katzen zian ituna... Garbi nian nirea ez zuala desi-  
ra soila, neurea nahitaezkoa huen... Apika, biziak  
ez zian zentzurik izango Bibiana erdiesten ez  
banian... Jada banian halako ilunaldi bat izpiritua-  
ren hondoenean. Batzuetan, ametsek errealitatea  
kuraiatzen ditek, baina bertzeetan errealitate gor-  
dina azaltzen..., errealitatean gertatu ezin litekeen  
ametsa.

Aitamek usu galdetzen zidatean ea ez al nian  
ezkondu behar..., ea ez nian gustoko emakumez-  
korik inguruetan. Nerau isilik gelditzen nin-  
duan...; ezin esaten nieran Amebizabalgo alaba  
zaharrena plazent nuanik, zein eta Amebizabalgo  
eta Goenako ondasunen esku egingo zen Bibiana.  
Ordea, erran beharko nian noizbait...; gurasoei,  
Bibianari... edo Aureliori. Ezin nian zaramatika  
honekin denbora luzez jarraitu.

Urtean bitan ordaintzen nizkiean lurren erren-  
tak; aurrenekoa Ostegun Santu egunean eta biga-  
rrena, aldiz, Santu Guztien egunean. Egun seinala-

tuak hauek. Asteartea izaki, bi egun falta hituan errentak ordaintzeko. Ontsalaz, Aurelio etorri ohi zuan kobratzera, baina aurreko aldietan Bibiana etorri huen.

Hau huen nire aukera...; pentsatze hutsak odolestu sentiarazten ninduan. Baina nik ez nian lotsarik..., ondotxo dakik hori, alboan eramateko lagun txarra baitzuan. Ez zitzaidaan axola nori esan... Sentitzen nuena kaleratzea erabaki nian. Apika, barre egingo zidakean, edo isilik geldituko zuan, edo berotuta jarriko zuan...

Ez zidan inongo erreparorik sortzen... Gehienez ere ironia bat izango zuan berarentzat... Niretzat hori azkena huen... Baina alferrik duk geroari begira egotea; baba egosiak ereitea...

Ostegun Santu eguna, egun handia izaki, ordainen eguna huen... Kirioak garuna jaten, pixkana-ka, astiro-astiro. Ordua eta denbora pertsona guz-tientzat eta momentu ezberdinetan ez zela berdina frogatu nian... Momentu bakoitzean ezberdina huen konstante batekin biderkatu behar huen unitate bakoitza, segundu, minutu... Halakoan entzun nian goizeko lehenbiziko zarata Ertson; Armailetako bidetik...

Sukaldeko zurezko mahai sendoaren inguruan, kafe bat eskaini nioan, badakik nolakoak dituen emakumeak. Pittinka-pittinka lan eta diru kontuetatik urruntzen ahalegindu ninduan...

Ez diat kontatuko zer esan nioan..., nola erran nioan eta zer nolako jazargoa egin zian. Ez zekiat..., neuk ere ez zekiat zer pentsatu.

Ostiral Santuko egurats narratsarekin batera, Aurelio etorri zuan gurera. Suak hartuta zegoan... Neu omen ninduan bere alaba artzain batekin ezkondu nahi izatearen hobenduna. Barrenean atzeman nian alegrantza hura neureganako makurreria bat besterik ez huan... Ezinezkoa huen... Baina ez nian horrenbestez amore emango. Urak oso gardenak dituk, baina uhandiekin berehala lokazten dituk...

Amebizabaldik gertu, azken bildotsak artegiratzeko asmoz nenbilean hartan, Bibiana etorri zitzaidan saltoka batean. Asko maite omen ninduan... Ikaragarri... Diruak ez omen dik eragirik..., baina egokiena ahaztea izango omen zuan...

Ondorengo egunak suleizean baino okerrago igaro nizkian; burutzapen makur haiek gori-gori egindako etsaien sardesken ziztadak ziruditean. Edozertarako gauza ninduan..., edozertarako.

Iluntzean, eguzkia sartzen ari zuan unean, itegiko sokarik sendoena hartu nian. Burukomin harekin amaitu nahi nian, behin betirako. Amebizabalgo etxe aurreko zipres altura igo ninduan... Hortik aurrekoa ez nauk ontsa gogorazten... Lepoan hartu nian talkadak lelotuta utzi ninduan... oraindik banian ikusmena. Ezin diat ziurtatu, baina Bibianak eta amak Aurelioren gorpua zekartean etxerantz... Odoldua... Negar egiten zitean. Kolpetik bota zuten gorpua lurrera... Atzera bueltatu ezina... Iluntasuna... Sugar batzuk noraezean...

Elizak dioenaren aitzia, zeruko atea ireki zizkidek..., paradisuan nagok. Hemen zeudek Abraham, Isaac, Jacob... Aurelio ere onartu ditek goi honetan. Ez duk lehengoa. Betiko zorionera heldu gaituk, baina ez diagu lehengo bizitza ahaztu. Biok ere dolu gaituk gertatutakoaz, batak besteari bizia kendu baitzioagu ezjakinean.

Badiat itxaropenik betiko benetako zoriontasuna lortzeko, Bibiana hona etorriko den esperantza...; kolpe handia izan duk berarentzat, aita eta senargaiak beren buruaz beste egin ditek, biek berarengatik. Aureliok ez zian bere alaba artzain batekin ezkontzerik nahi... eta nik..., nik ez nian bizi gogorik, ez bainian aukerarik... Ez zekiat zer dagoen guztiaren atzean, bestela hemen izan behar huan...

San Pedro ate atzeko eserlekuetik altxa duk, eskuetan duen giltza sortaren hotsa entzun baitiat... Bazijoak emaro atea irekitzera, nahiz eta txirrinak ez duen jo...

...ulertzen?... ulertzen al didak! Hik endelegatu behar didak, nork bertzenaz... Badakik zein garrantzitsua den bera izatea... Hik ulertu didak, hi guztion erregea haiz...; pekatarion zeru-lurretako gorena...